

EUSKAL UNIBERTSITATE
SISTEMAREN KALITATE
AGENTZIA
AGENCIA DE
CALIDAD DEL SISTEMA
UNIVERSITARIO VASCO



Unibertsitate-zentroen Akreditazio Instituzionala berritzeko estandarren- eta irizpideen-gida



Lan honen edukiek Creative Commons-en Aitortu-Ez-Komertziala-Obra Deribaturik Gabe- 3.0 lizentzia behar dute. Baimena ematen da erreproduzitu, banatu eta jendaurrean jartzeko, baldin eta egiletza behar bezala aipatzen bada eta merkataritzako erabilerarik egiten ez bada. Lizentzia osoa hemen kontsulta daiteke: <http://creativecommons.org/>

© Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia
San Prudencio Kalea, 8, 01005 Vitoria-Gasteiz
www.unibasq.eus

Unibasqeko plantilla teknikoak eta zuzendaritzak egindako gida, Unibasqeko Aholku Batzordearen eta Euskal Unibertsitate Sistemako eragileen ekarpenekin. Agentziak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten horiei guztiei.

Unibasqeko Aholku Batzordeak 2024ko abenduaren 16an onartutako gida.

Hirugarren bertsioa: 2024ko abendua

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Akreditazio Institutuzionala berritzeko eredua	5
3. Akreditazio Institutuzionala berritzeko prozedura	9
4. Akreditazio Institutuzionala: dimentsioak	15
1. dimentsioa - Estrategia eta kalitate-politika	15
2. dimentsioa - Proiektu akademikoa	17
3. dimentsioa - Pertsonak	19
4. dimentsioa - Baliabide materialak eta zerbitzuak	20
5. dimentsioa - Etengabeko hobekuntzarako emaitzak eta jarraipena	22
6. dimentsioa - Informazio publikoa	23
5. Erreferentziak.....	25

1. Sarrera

Unibasqen Gida honen helburua da irizpide eta estandar batzuk ezartzea, Euskal Unibertsitate Sistemako (EUS) unibertsitate-zentroen Akreditazio Instituzionala berritzeko edo berrakreditazio instituzionala. Goi-Mailako Hezkuntzaren Kalitaterako Europako Elkartean (European Association for Quality Assurance in Higher Education, ENQA) sartuta dauden agentzien filosofiarekin bat eginez, Gida hau unibertsitate-zentroen Akreditazio Instituzionala berritzeko filosofia orokorra eta jarraibide zehatzak ezartzen dituen protokoloa da, hurrengo atalean zehazten diren araudi-erreferenteen arabera. Gida honen bidez, era berean, zentro horiek osatzen dituzten unibertsitateetako eta erakundeetako arduradunei orientabide erabilgarriak eskaini nahi zaizkie, zentroaren Akreditazio Instituzionalaren ebaluazio-autotxostena egiteko (hainbat izen jaso ditzake, hala nola, Akreditazio Instituzionalaren Txostena, Kudeaketa Txostena, Zentroen eta Tituluen Anlisi eta Hobekuntza Txostena, etab.), Akreditazio Instituzionala berritzeko prozesuari begira derrigorrezko autotxostena. Horrez gain, Unibasqeko kanpo-ebaluazioko taldeei beren lana modu sistematikoan eta fidagarrian egiteko erreferenteak ematen saiatzen da.

Akreditazio Instituzionala borondatezko¹ prozesua da, eta kalitatea ziurtatzeko erantzukizun partekatua prozesuan sakontzeko balio behar luke. Alde batetik, unibertsitateetara bideratzen du Zentroaren Proiektu Akademikoa betetzen dela bermatzen duten prozesuen erantzukizuna. Proiektu hori ikasketa-plan egiaztatuek eta ikasleei eskaintzen zaien heziketaren etengabeko hobekuntzak osatzen dute, eta, bestetik, unibertsitate-legerian zehaztutako kanpo-ebaluazioko organoen edo kalitate-agentzien ziurtapen-, egiaztapen- eta ebaluazio-funtzioak finkatuko dira, hobekuntzara bideratuta.

Erantzunkidetasun hori Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan (GHEE) kalitatea ziurtatzeko irizpideen eta jarraibideen aplikazioaren isla da (*Standards and guidelines for quality assurance in the European Higher Education Area*, ESG akronimoarekin ezagutzen dena). Esparru horren printzipioetako bat da “*goi-mailako hezkuntzako erakundeak dira beren eskaintza akademikoaren kalitatearen eta hori ziurtatzearen arduradun nagusiak*”, eta, aldi berean, “*Europar kalitatea ziurtatzeko agentziak eta haien jarduerak ebaluatzeko irizpideak ematen dira*”. Hori guztia esparru malgu bat eskainiz (ENQA, 2015), honako helburu hauekin:



¹ Uztailaren 27ko 640/2021 Errege Dekretuaren 14. artikulua unibertsitate-zentroek akreditazio instituzionala lortzeko bete beharreko baldintzak ezartzen ditu; besteak beste, gutxienez graduiko titulu ofizialen erdiaren, masterreko titulu ofizialen erdiaren eta ematen dituzten doktoregoko titulu ofizialen erdiaren hasierako akreditazioa berritu izana eta kalitatea bermatzeko barne-sistemaren ezarpenaren ziurtagiria izatea. 640/2021 Errege Dekretuaren 14.3 artikuluko baldintzak bete ondoren, unibertsitateak zentro baten edo batzuen akreditazio instituzionala eskatuko dio Unibertsitate Kontseiluari. Honek, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren bitartez, Unibasqi helaraziko dio, eta honek txosten lotesle bat egingo du. Kontseiluak akreditazio-ebazpena emango du, eta aldeko txostena bada, unibertsitateari, ebaluazio-agentziari, autonomia-erkidegoari eta ministerioari jakinaraziko die, RUCT erregistroan inskribatzeko.

- “Esparru komuna ezartzea irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren kalitatea ziurtatzeko sistemarako, European, Espainian eta erakundeetan;
- Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan (GMHEE) goi-mailako hezkuntzaren kalitatearen ziurtatzea eta hobekuntza ahalbidetzea.
- Elkarrenganako konfiantza bultzatzea, eta, hartara, estatu barruko eta kanpoko mugikortasuna eta onarpena erraztea.
- GHEEn kalitatea-ziurtatzeari buruzko informazioa ematea.”

Akreditazio Instituzionalaren bidez beste urrats bat eman nahi da unibertsitate-erakundeen autonomia indartzeko, eta agerian jarri nahi da ebaluatu eta egiaztatu nahi den unibertsitate-zentroak gizaritari eskaintzen dion Proiektu Akademikoaren kalitatea ziurtatzeko legezko erantzukizuna betetzen duela. Unibertsitate-zentroaren ardura da kalitatea ziurtatzeko jarraibideak eta ildoak bere eguneroko lanean sartzea, Kalitatea Kudeatzeko Sistemak (KKS)² zehaztuta egon beharko direnak.

Unibertsitateek edo unibertsitate-zentroek garatutako KKS tresna eraginkorrak dira, eta, ESGen arabera, *“kalitatea ziurtatzeko sistema instituzional koherentea, etengabeko hobekuntzarako ziklo bat osatzen duena eta erakundearen erantzukizunari laguntzen diona”* osatu behar dute. Unibertsitateek eta beren zentroek KKSak diseinatu eta garatzen izandako esperientziak, kasu askotan AUDIT³ ereduari jarraiki, kalitatezko ikuspegi bat garatzen lagundu du, Tituluen ebaluazio-prozesuetako fase desberdinetan (diseinua edo egiaztapena, jarraipena edo akreditazioaren berritzea) eragin positiboa izan duena.

Hala ere, Unibasqen iritziz, esparru horretako kalitatearen eta hobekuntzaren kulturaren garapena goi-mailako hezkuntzaren erakunde bakoitzean proiektu daiteke —bai plano instituzional orokorrean, bai unibertsitate-zentro zehatzean —ikuspegi askotariko eta malgu batetik, eta, hala, egoki iritziz gero, unibertsitateetako kalitatea ziurtatzeko paradigma bera ere gainditu ahal izango du, eta hobetzeko beste eredu eta erreferentzia batzuk erabili ahal izango dira, adibidez, Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (KAE), Euskalitek 2014az geroztik bultzatutako autoebaluazio-eredua, erreferentzia-eredua dena Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat erakunde publiko eta pribaturentzat, bai industriaren eremuan, bai zerbitzuetan.



² Akreditazio Instituzionalarekin lotutako ebaluazio-prozedura orokorrak arautzen dituen erreferentziako araudian (ikus Gidaren hurrengo atala), Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema eta Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) bezalako kontzeptuak erabili izan dira unibertsitate-zentroetako Kalitate Sistemak, Kalitatea Ziurtatzeko Sistemak edo KKSak aipatzeko (bai irismen orokorrekoak, hau da, zentro mailakoak, bai unibertsitate-tituluei lotutakoak). Gida honetan KKS termino generikoa erabiltzea erabaki da. Terminu hori da, agian, zabalduena eta, jakina, bere ikuspegira ondoen egokitzen dena.

³ AUDIT programa Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA, gaztelaniazko sigletan) garatu zuen 2007an, Espainiako unibertsitate-zentroetan kalitatea bermatzeko barne-sistemak garatu eta hauen ezartzea sustatzeko helburuarekin, eta sistema hauek aitortzea eta ziurtatzea ahalbidetuko zuen prozedura bat abian jartzeko. Unibasqek 2007. urtean lankidetzahitzarmen bat sinatu zuen ANECA-rekin, Unibertsitateko Prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak Aitortzeko Programan (AUDIT) parte hartzeko.

2. Akreditazio Instituzionala berritzeko eredia

Akreditazio Instituzionala berritzeko Unibasqen eredia 6 dimentsiotan egituratzen da, eta unibertsitate-zentroen jardueraren funtsezko alderdi batzuk —elkarren arteko lotura dute guztiak— biltzen saiatzen dira. Dimentsio horiek, era berean, irizpide, estandar (irizpide horiek definitzen dituzte) eta ebaluaziorako jarraibideetan egituratzen dira, bai autoebaluaziorako, bai kanpo-ebaluaziorako. Era berean, jarraibide bakoitzean kontuan hartu ahal izateko alderdi jakin batzuk zehazten dira. Hobekuntzarako (*enhancement*) eta kontuak emateko (*accountability*) jarraibide horiek guztiak unibertsitate-zentro bakoitzak autoebaluazio-ikuspegitik egindako txostenaren prestakuntza errazteko ezarri dira. Horrekin batera, autoebaluazio hori bermatzen duten ebidentziak ere kontuan hartu beharko dira hau da, egindako autoebaluazioa berretsi edo ziurtatu ahal duen informazioa.

Etengabeko hobekuntzako PDCA zikloa (ingelesezko Plan-Do-Check-Act) etengabeko-hobekuntza kontzeptuaren irudikapen grafikoa da, eta asko erabiltzen da nazioarteko erreferentzia nagusien arabera diseinatutako **Kalitatea Kudeatzeko Sistemak** (KKS) adierazteko, hala nola EFQM, Fundibeq, Malcolm Baldrige eta ISO 9001, besteak beste.

Akreditazio Instituzionala berritzeko Unibasqen eredia (ikus 1. irudia) etengabeko hobekuntzako PDCA zikloan oinarritzen da. Eredua hori diseinatzeke, bi erreferentzia-mota hartu dira kontuan: (1) hainbat motatako lege-erreferentziak eta jarraibideak; (2) Agentziaren beraren esperientzia, EUSko unibertsitateena eta haien unibertsitate-zentroena.

Erreferentziei dagokienez (1), lehenik eta behin —eta indarrean dagoen esparru arautzaileari dagokionez—, honako lege-xedapen hauek hartzen dira kontuan, besteak beste; Irailaren 28ko, 822/2021 Errege Dekretua; uztailaren 27ko 640/2021 Errege Dekretua; Unibertsitate Idazkaritza Orokorren 2022ko martxoaren 3ko Ebazpena (Unibertsitate publikoen eta pribatuen zentroen Akreditazio Instituzionalerako prozedimenduari buruzko jarraibideak ezartzen dituen, unibertsitate-zentroen kalitatea bermatzeko barne-sistemak ziurtatzeko protokoloa eta unibertsitate-zentroen Akreditazio Instituzionala berritzeko ebaluazio-prozedurarako Protokoloa argitaratzen dituen, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrak onartutakoa).

Akreditazio instituzionalean, unibertsitate-zentroak dira ebaluazio-prozesuaren unitatea edo antolakuntza-erreferentea. Zentroetan Proiektu Akademiko bat proposatzen da, baliabideak partekatu ohi dituzten antzeko diziplinetako titulazio batzuek osatua, eta irakaskuntzaz harago doazen beste bi unibertsitate-misioekin ere zerikusia duena (**ikertzailea** eta ezagutza gizartera **transferitzekoa**).

Xedapen horietan guztietan, Akreditazio Instituzionala eta bere berritzeari buruzko alderdiak ezartzen dira. Horiez gain, Eusko Jaurlaritzaren 4067/2018 Agindua (Euskadiko unibertsitate-ikasketen eskaintza metodo eta metodologia berritzaileen arabera, nazioartekotzearen arabera eta enpresa, erakunde eta beste erakunde batzuekiko harremanaren arabera kategorizatuko dela ezartzen duena) eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren

Kalitate Agentziaren ekainaren 28ko 13/2012 legea bera.

Bigarren, Gidak “Unibertsitate-zentroen Akreditazio Instituzionala berritzeko protokoloa” hartzen du erreferentzia gisa. Protokolo hori REACUK (Unibertsitateko Kalitate Agentzien Espainiako Sarea) 2020ko urtarrilaren 15ean egindako bileran onartu zen aipatutako Unibertsitateko Idazkaritza Orokorren Ebazpenak jaso zuena (ikus I. Taulan Unibasqen Akreditazio Instituzionala berritzeko ereduaren, REACUren “Unibertsitate zentroen Akreditazio Instituzionala berritzeko Protokoloa”ren, ESGen eta AUDIT ereduaren arteko elkarrekotasunen laburpena) eta “Hainbat zentroetan emandako

tituluen kasuak ebaluatzeko prozedura, unibertsitate-zentroen Akreditazio Instituzionalerako protokoloen esparruan” 2022ko apirilaren 29an REACUren bilera onartua.


1. Taula: Unibasqen Akreditazio Instituzionala berritzeko ereduaren, REACUren protokoloaren, ESGen eta AUDIT ereduaren arteko elkarrekotasunak

AI Irizpideak Unibasq	Protokoloa- Erreferentzia irizpideak (BKKS ziurtapena)	ESG 2015	AUDIT eredu
Estrategia eta kalitate-politika	I. Kalitate-politika eta helburuak	1.1 Kalitate-ziurtatze politika	Zentroak bere kalitate-politika eta -helburuak nola definitzen dituen
Zentroaren Proiektu Akademikoaren diseinuaren kudeaketa	II. Heziketa-programen kalitatea ziurtatzea	1.2 Programen diseinua eta onspena	Zentroak bere heziketa-programen kalitatea nola bermatzen duen
Zentroaren Proiektu Akademikoa hedatzea eta ezartzea, ikaslea ardatz izanik	III. Ikasleei bideratutako ikasketa	1.3 Ikaslea ardatz duen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa	Zentroak ikasketak ikasleei nola bideratzen dizkien
		1.4 Ikasleen onarpena, bilakaera, aitortpen eta egiaztapena	
Unibertsitate-zentroaren langileen bermea eta hobekuntza	IV Langile akademikoaren eta irakaskuntzari laguntzarako langileen bermea eta hobekuntza	1.5 Langile akademikoak	Zentroak nola bermatzen eta hobetzen duen bere langile akademikoaren kalitatea
Zerbitzuen eta baliabide materialen bermea eta hobekuntza	V. Baliabide materialen eta zerbitzuen bermea eta hobekuntza	1.6 Irakaskuntzarako eta ikasleen laguntzarako baliabideak	Zentroak baliabide materialak eta zerbitzuak nola kudeatzen eta hobetzen dituen.
Emaitzen analisia	VI. Formakuntza programen emaitzen analisia	1.7 Informazioaren kudeaketa	Zentroak emaitzak nola aztertzen eta kontuan hartzen dituen
Zentroaren jardueri eta Proiektu Akademikoari buruzko informazioa argitaratzea	VIII. Zentroaren jardueri eta formakuntza programei buruzko informazioa argitaratu	1.8 Informazio publikoa	Zentroak nola argitaratzen duen titulazioei buruzko informazioa
Zentroaren jardueren eta Proiektu Akademikoaren jarraipena	VII. Zentroaren jardueri buruz sortutako informazioaren analisia eta erabilera	1.9 Programen segimendu jarraitua eta aldizkako ebaluazioa	Zentroak emaitzak nola aztertu eta kontuan hartzen dituen

Iturria: Unibasq.

Hirugarren, Gidak ESGak ere hartzen ditu erreferentzia gisa eta ENQA kide diren agentziak bere jardueran egiten ari direna, bereziki berritzaile eta punta-puntako agentzien esperientzia, besteak beste, zeharkako analisi tematikoari eta arriskuen ebaluazioan oinarritutako ikuspegiari dagokionez, Gidan honen 3.3 atalean aipatzen direnak.

1. irudia: Unibasqen Akreditazio Instituzionala berritzeko eredia



Iturria: Unibasq.

Laugarren, Gidak, ESGkin lerrokatuta dagoen AUDIT ebaluazio-eredua hartzen du erreferentziazat.

Eta, azkenik, Euskal Unibertsitate Ekosistemaren esparru orokorra kontuan hartuta, KAE ere hartzen da erreferentzia gisa.

Esperientziari dagokionez (2), Gidak Agentziak EUSko titulazioen ebaluazio-prozesuetan egindako lana hartzen du erreferentziazat, egiaztapen-baimenari, segimenduari eta akreditazioaren berritzeari begira. Horrez gain, Unibasqen Unibertsitate-Hezkuntza Dualeko edo Ikas-ekinezko Heziketa eta Nazioarteko Kalitate Zigiluen inguruan egindako lana ere aipatu behar da. Era berean, erakundeen arloan, AUDIT programaren bidez, Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateetako (propioak eta atxikiak) zentroetako KKS guztien diseinuak ebaluatu dira, eta, 2013az goerotik, behar adinako heldutasun-maila zuten KKSak ezarri zirela ziurtatu zen.

Indarrean dagoen arau-esparruaren eta EUSren unibertsitateetan horren inguruan egin den ibilbidearen arabera, zentroek Akreditazio Instituzionala lortzen joan dira euren KKSak AUDIT ereduaren arabera

ziurtatuz. Erreferentzia eredu hori egokitzat jotzen da Akreditazio Instituzionala berritzeko, oro har, baina ESGen lehenengo atalarekin lerrokatutako beste garapen batzuk ere kontuan har daitezke (“Kalitatearen barne-ziurtatze irizpideak eta jarraibideak”). Izan ere, Unibasqek esparru jakin horretan berrikuntzaren eta hobekuntzaren aldeko apostua egiten baitu. Hain zuzen ere, ENQAK berak azpimarratutakoaren ildotik, KKSak arrazionalizatzeko eta desburokratizatzeko eta barne zein kanpo kalitate-ziurtatzean KKS horien ikuspegia heziketaren kalitatearen benetako hobekuntzerantz bideratuz (alegia, *enhancement* ikuspegia azpimarratuz).

Azkenik, Unibasqek duen esperientzia ere aipatu beharra dago; bai unibertsitateen irakaskuntzaren kalitatea ebaluatzeko prozesuekin lotuta dagoen DOCENTIA programen ebaluazioan, bai EUSko unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileen (PDI) egiaztapena programarekin lotutakoan.

Esan bezala, Unibasqen Akreditazio Instituzionala berritzeko ereduaren sei dimentsioen egituraketa etengabeko hobekuntzako PDCA zikloaren antzeko hobekuntza-zikloarekin irudika daiteke —1. irudian ageri den bezala—, eta horri funtsezko osagai bat gehituko litzaioke, ESG irizpideak eta jarraibideak aplikatzearen ondorioz: informazio publikoa, kontuak ematearekin zerikusia duena. Unibasqen akreditazio instituzionala berritzeko ereduak unibertsitate-zentroen ikuspegi estrategikoa eta integratua indartzera bideratutako ereduak da, bere Proiektu Akademikoa betetzen dela bermatzen duten prozesuen hobekuntzan (*enhancement*) eta kontu-ematean (*accountability*) duen erantzukizuna nabarmentzen duen ereduak. Proiektu hori, besteak beste, egiaztatutako eta akreditatutako ikasketak planek osatzen dute.

Era berean, unibertsitateko ebaluazio- eta akreditazio-prozesua efikazagoa eta eraginkorragoa izatea du helburu eredu horrek, Unibasqen aintzatespenen edo Kalitate-zigiluen beste ebaluazio-mota batzuk — bai emakidakoak, bai jarraipenekoak— sinplifikatuz eta integratuz.

3. Akreditazio Instituzionala berritzeko prozedura

Akreditazio Instituzionala berritzeko prozedura Unibasqek definitzen du, Akreditazio Instituzionala berritzeari dagokionez aplikagarri zaion legeria kontuan hartuta (ikus aurreko puntua) eta, bereziki, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorrak onartutako “Unibertsitate-zentroen akreditazio instituzionala berritzeko ebaluazio-prozedurarako Protokoloa”. Berritze-prozedura horrek honako zortzi urrats hauek ditu:

3.1. Unibertsitate-zentroen akreditazio instituzionala berritzeko eskaerak aurkeztea

Unibertsitate-zentroen akreditazioa sei urte igaro baino lehen berritu behar da, Unibertsitate Kontseiluaren azken akreditazio-ebazpena lortzen den egunetik kontatzen hasita. EUSko unibertsitateek beren unibertsitate-zentroetako akreditazio instituzionala berritzeko eskatuko dute, eskaerak Unibertsitate Kontseiluari aurkeztuz, Unibertsitate Ministerioaren aplikazioaren bidez.

Eskaerarekin batera Zentroaren ebaluazio-autotxostena aurkeztuko dute, gida honetan ezarritako dimentsio eta ebaluazio-irizpideen arabera eta Unibertsitate Kontseiluaren Akreditazio Instituzionalari buruzko azken ebazpena lortzen den egunetik eskabidea egiten den egunera arteko epea hartuko da kontuan. Autotxostenak erakundearen KKSaren integrazioaren eta eraginkortasunaren ikuspegi osoa eta zehatza eskainiko du. Besteak beste, lorpenen eta ebaluazio-prozedura orokorretan identifikatutako hobekuntza-arloen azterketa zehatza eman behar du, baina hautaketa-irizpidearekin eginda, ikuspegi integratzaile eta holistiko argiarekin.

Dokumentuak autoesplikatiboa izan beharko du, eta identifikatutako erronkei ekiteko ezarritako estrategia eta ekintza garrantzitsuenei buruzko beharrezko informazioa eman beharko dio ebaluazio-panelari. Narratibak argia izan behar du, datuek babestua, eta atzaerelikadurako mekanismoen jarraitasun argia utzi behar du (alderdi interesdunen gogobetetzea biltzeak eta aztertzeak garrantzi nabarmena izango du mekanismo horietan), bai eta eragile edo talde interesdunen parte-hartzea ere, hezkuntza-ingurunearen premia aldakorretara egokitzeko eta hobetzeko etengabeko konpromisoa erakutsiz.

Era berean, autotxostenak ebaluazio-prozedura orokorretan eta, hala badagokio, Agentziak zigiluak edo aintzatespenak emateko egindako txostenetan esplizituki egindako errekerimenduei eta/edo gomendioei erantzuteko moduari buruzko informazio espezifikoa jaso beharko du.

Autotxostenak informazio-iturria izan behar du bere baitan, eta kanpoko ebaluazio-panelak ez du zertan narrazio- eta interpretazio-logika egokirik gabeko desintegratutako ebidentzien multzo zabal bat aztertu. Bere luzera 30 eta 60 orri bitartekoa izan beharko da (gutxi gorabehera 15.000-30.000 hitz), Zentroaren titulazio ofizialen kopuruaren arabera aldatuz.

Ebaluazio-autotxostenarekin batera, bertan jasota dagoen informazioa justifikatzen duten ebidentziak aurkeztuko dira, estrategiek eta ekintzek programa akademikoen kalitatea eta ikasleen esperientzia nola hobetu duten frogatuz. Ebidentzia hauen hautaketa egokia, dagozkien adierazleekin batera (kuantitatiboak eta kualitatiboak, absolutuak eta erlatiboak), KKSren garapen-mailaren eta zentroan kalitate-kultura finkatzearen isla izango da.

Hau guztia Unibasqi igorriko zaio, behar adinako aurrerapenarekin, prozedura ezarritako epean ebatz dadin.

3.2. Bisita-panela ezartzea

Unibasqek, jasotako eskaeren arabera, ebaluazioa gauzatzeko eta ebaluatu beharreko zentrorara egiten den bisitaldia antolatzeko panelak eratuko ditu.

Panel bakoitzak, oro har, osaera hau izango du:

- Presidente kargua beteko duen akademiko bat.
- Kide akademikoak (kopuru aldakorra).
- Idazkari lanak egingo dituen pertsona bat.
- Ebaluazio-prozesuetan trebatutako ikasle bat (bokala).
- Ebaluatu beharreko tituluen esparru zientifiko-teknikoetako kide profesional bat (bokala).

Akademikoen kalitatearen ebaluazioan eskarmentua izan behar dute (ahal den neurrian, ebaluazio instituzionalean eta/edo titulazioetan). Panela osatuko dutenen artean kalitatearen ziurtapen edo unibertsitate-kudeaketan aditua den norbait egon beharko da. Halaber, agentzien Ebaluazio-batzordeetako kide gisa titulazioak baimendu, egiaztatu edo haien jarraipena egiteko alde aurreko txostenak emateko prozesuetan izandako esperientzia baloratuko da.

3.3 Testuingurura moldaturiko aurre-analisia

Zentrora egingo den bisita eta panelak Akreditazio Instituzionala berritzeko dosierra aztertu aurretik, kanpo ebaluatzaileek lekuan lekuko testuingurura moldaturiko aurre-analisi bat osatuko dute (Akreditazio Instituzionalerako Batzordeko kideek, Tituluen Ebaluaziorako Batzordeko kideek edo lan horretarako aukeratutako kanpo ebaluatzaileek parte hartu ahal izango dute), Unibasqeko teknikarien laguntzaz. Aurrez egindako analisi horren helburua izango da ebaluatu beharreko alderdi jakin batzuen zeharkako analisia egitea. Alderdi horiek unibertsitate-mailakoak izango dira, eta ez ikastetxe mailakoak (adibidez, ikasleen gogobetetze-mailaren ebaluazioari buruzko alderdiak edo langile-politikarekin zerikusia dutenak). Era horretan, panelaren ebaluazio lana eta, orokorrean, ebaluazio-prozesua sinplifikatu eta erraztu ahalko da. Zeharkako ebaluazio horiek analisi tematiko gisa antolatuko dira, eta EUSeko unibertsitateekin planifikatu eta adostuko dira, GHEEko beste eremu geografiko batzuetan egiten den bezala, unibertsitate-hezkuntzaren kalitatea hobetzeko orientazio argiarekin (enhancement izeneko ikuspegiarekin, hain zuzen ere).

Era berean, Akreditazio Instituzionalaren jarraipen-txostenetan jasotzen diren alderdi garrantzitsuenak aztertuko dira, baita Agentziaren beste ebaluazio programa batzuekin zerikusia duten alderdi garrantzitsu batzuk ere (adibidez, titulazioen edo/eta irakaskuntzaren kalitatearen edo/eta kalitate-zigiluen ebaluazioak, besteak beste), eta, hala badagokio, Agentziak berak egindako jarraipen-prozesu orokorrean atzemandako edo kanpotik jasotako kexa edo hobekuntza- iradokizun nagusien laburpena.

Testuinguruan moldaturiko aurre-analisiari begira, unibertsitateak ebaluazio-prozesurako emandako informazioaz eta dokumentazioaz gain, zentroaren edo haren titulazioen webguneetan agertzen den informazioa ere aztertuko da. Aurrez egindako azterketan jasotako informazioa bisita-panelaren eta Akreditazio Instituzionalerako Batzordearen eskuetan jarriko da, kontuan izan dezaten. Testuingurura moldaturiko aurre-analisi hau eta Akreditazio Instituzionala berritzera bideratutako ebaluazioa, oro har, ENQAKo kide diren agentzia batzuek GHEEn sustatzen ari diren arriskuen ebaluazioan oinarritutako ikuspegiekin lerrokatuta egingo da (Sánchez Chaparro, 2022).

Akreditazio Instituzionalerako Batzordeak aurre-analisiaren ondorioz bisita-prozesua bertan behera uzteko erabakia har dezake, beti ere ondo justifikatuz gero.

3.4. Bisita-panelak Akreditazio Instituzionala berritzeko txostenari egin beharreko azterketa

Unibasqek bisita-panelari zentroko Akreditazio Instituzionalaren berritze-txostenerako sarbidea emango dio, eta bisita egiteko behar den informazio guztia ere eskuratuko dio:

- Autoebaluazioren ikuspegitik egindako zentroaren akreditazio instituzionalaren txostena eta autoebaluazio-txostena bermatzen duten ebidentziak.
- Zentroan ematen den titulu bakoitzaren memoria egiaztatua azken bertsioa.
- Zentroak parte hartu duen programei buruz Agentziak emandako gainerako txostenak, araudiak ezartzen duen bezala.
- Aurre-analitik jasotako informazioa

Bisita-panela osatzen duten kideek dokumentazio guztia aztertuko dute eta alde zuzenetik berrikuspen bat egingo dute, Gida honetan ezarritako irizpide eta estandarrak kontuan hartuta indarguneak eta hobetu beharreko arloak identifikatzeko. Prozesu horretan unibertsitateak

emandako informazioaz eta dokumentazioaz gain, panelak Zentroari eta eskaintzen dituen titulazioei buruz eskuragarri dagoen informazio publikoa aztertuko du.

Panelak bisitan landu beharreko alderdiak zehaztuko ditu. Besteak beste, alderdi hauek zehaztu beharko ditu:

- Ebaluatu beharreko alderdiak eta elkarrizketatu beharreko kolektiboak: bisitan argitu beharreko gai nagusiak eta elkarrizketatu beharreko kolektiboak identifikatuko ditu.
- Eskatu beharreko ebidentzia gehigarriak: alderdi nahasgarriak, kontraesankorrak edo ebidentzia nahikoetan oinarritzen ez direnak argitzeko bisitan behar den informazio gehigarria edo datuak identifikatuko dira. Ebidentzia hauek unibertsitateek Agentziari bidali beharko dizkiote (ez da onartuko dokumentazioa edo bertan dagoen informazioa aldatu ahal izateko karpetak partekatzea, arazoak saihesteko).
- Berariazko instalazioetara egin beharreko bisitak.
- Agenda-proposamena: aurrekoaren arabera, unibertsitateari bidaliko zaion agenda bat prestatuko da. Bisita-panelak erabakitzeke eskumena izango du zein profilekin edo pertsonarekin egin nahi dituen elkarrizketak. Zentroak proposatutako programan doikuntza batzuk iradoki ahal izango ditu, bisita-panelak balioztatu beharko dituenak. Ez da aurreikusitako saioetan galderak egiteko denbora murrizten duten aldaketarik egingo, aurkezpenak barne, baldin eta panelak berariaz eskatzen ez badu.

3.5. Zentroa bisitatzea

Panelak bisita egingo du Zentroarekin adostutako agendaren arabera, honen garapena zehaztuko den data eta ordutegiak modu argian adieraziz. Unibertsitateko kide bat bisita koordinatzeaz eta panelari harrera egiteaz arduratuko da.

Bisita bermearekin egiteko zentroak honako hauek prestatu edo kontuan hartu beharko ditu:

- Zentroaren interes talde nagusiak (eta bereziki, ikasleak eta irakasleak) garaiz eta modu egokian egin behar den kanpo-ebaluazioaren berri dutela bermatu behar du eta bertan parte hartzea bultzatu/sustatu behar du.
- Bisitan, interes talde ezberdinen audientzia publikoa bermatzea uneoro.
- Panelak eskatu dituen kolektibo ezberdinetako pertsonak hautatu, konfidentzialtasuna, pluraltasuna eta ikuspegi-aniztasuna bermatuz eta hautaketa-joerarik gabe.
- Bilerak era egokian antolatu, panelak Akreditazio Instituzionala berrizteko ebaluazio-prozesuari buruz egin ditzakeen eskaerei erantzuna eman.
- Panelaren eskura izan eskatu daitezkeen ebidentzia gehigarriak.
- Panelaren eskura jartzea beharrezko aretoak, behar bezala egokituak, bai aurreikusitako elkarrizketak egin ahal izateko, bai eta bildutako informazioa

Oso garrantzitsua da audientzien **ordezkaritza** soziala **bermatzea**, jasotako iritziak kolektiboen **iritzien, ikuspegi**en eta **sentsibilitateen aniztasunera** ahalik eta gehien egokitu daitezen.

bateratzeko barne-bilerak ere. Halaber, ebaluazio-taldeari Interneten sartzeko erraztasunak eman beharko dizkio.

- Campusaren barruko joan-etorriak erraztea panelari, beharrezkoa den kasuetan.
- Behar izanez gero, panelaren esku jarri audientziak online egiteko aplikazio informatiko baterako sarbidea.

Bisitaren helburu nagusia proiektu akademikoaren garapena eta zentroan kalitatea hobetzeko hartutako politiken eraginkortasuna *in situ* ezagutzea da. Agentziak hala erabakitzen badu, zentroko hainbat agenterekin elkarrizketa pertsonalak edo kolektiboak egin ahal izango dira bisita aurretik edo bisita amaitu ondoren. Elkarrizketa horiek, egiten badira, ez-presentzialak izango dira, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik. Programaren helburuak kontuan hartuta, elkarrizketa hauen helburua zentro eraginkorrenak bisitatzeko agendak planifikatzea da.

Aldez aurretik bidali ez diren ebidentziak berrikusteko eta entzunaldi publikoa egiteko denbora-tarte bat egongo da, eta ebaluatutako zentroaren jarduerarekin zerikusia duen informazio gehigarria helarazi nahi duen pertsona orok parte hartu ahal izango du tarte horretan. Bisitan, panela agendan jasotako kolektiboekin elkarrizketatuko da eta, salbuespen kasuetan, beste kolektibo eta/edo pertsona batzuekin ere elkarrizketatu ahal izango da, egoki iritziz gero. Bisitaren iraupena ebaluatutako zentro bakoitzaren araberakoa izango da, kontuan hartuz haren tamaina, titulazio kopurua eta abar. Bisita ez-presentzialak edo urrutiko bisitak planifikatu daitezke, horretarako eskura dauden baliabide telematikoak erabiliz, hala nola bideokonferentzia. Era berean, hainbat arrazoiengatik —hala nola baliabideen kudeaketan eraginkortasuna edo mugitzeko zailtasunak—, Agentziak egokia dela iritzien badio elkarrizketak edo horietako batzuk, urrunetik ere egin ahal izango dira, aipatutako baliabideak erabiliz.

3.6. Panelak egindako bisita-txostena eta Batzordeak egindako Akreditazio Instituzionala berritzeko behin-behineko txostena

Panelak bisita-txostena idatziko du eta modu kolegiatuan jardungo dute.

Bisitaren txostena amaitzerakoan, panel-buruak Unibasqera bidaliko du.

Berariaz horretarako sortutako Unibasqeko Akreditazio Instituzionaleko Batzordeak aztertuko ditu autoebaluazio ikuspegiarekin egindako txostena, bisitaren txostena eta Akreditazio Instituzionalaren txostenean jasotako gainerako informazioa.

Egindako azterketaren ondorioz, Batzordeak ebaluazio-txosten bat egingo du. Behin-behineko ebaluazio txosten hori honelakoa izan daiteke: Akreditazio Instituzionala berritzearen aldekoa edo kontrakoa, eta, bigarren kasu horretan, nahitaez aldatu behar diren alderdiak zehaztu beharko dira aldeko txostena lortzeko.

Txosten guztiak arrazoitu egin beharko dira, emaitza edozein dela ere. Txosten horretan jasoko dira hautemandako indarguneak eta praktika onak, ahuleziak eta, hala badagokio, nahitaez hobetu beharreko alderdiak eta beharrezkotzat jotzen diren gomendioak.

Unibasqeko Akreditazio Instituzionalaren Batzordeak ebaluazio-txosten bat egingo du. Txosten hori **aldekoa** edo **kontrakoa** izan daiteke. Bigarren kasu horretan, Akreditazio Instituzionala berritzeko nahitaez aldatu behar diren alderdiak zehaztu beharko dira.

Akreditazio Instituzionala berritzeko behin-behineko txostena unibertsitatera igorriko da. Unibasqeko Akreditazio Instituzionaleko Batzordeak bisita bertan behera uztea erabakitzen badu, Akreditazio Instituzionala berritzeko behin-behineko txosten arrazoitua egingo du.

Aldekoa izanez gero, zentroak edo unibertsitateak egokiak diren gogoetak egin ahal izango ditu 20 egun balioduneko epean. Behin betiko txostena aldekoa bada eta horrela badagokio, Unibertsitateak Hobekuntza Plan bat aurkeztuko du, ekintza zehatzekin, beren helburuei lotuta, denboran argi eta mugatuta egon behar direnak, eta erraz gainbegiratu eta ebaluatu ahal izateko moduan Hobekuntza Plan hori ebaluazio prozesua bukatu eta ahalik eta lasterren jarri beharko da martxan, Akreditazio Instituzionaleko behin-behineko txostenean identifikatutako akatsak behin-behinean ezabatu ahal izateko, eta/edo Txosten horretan identifikatutako ahuleziak hobetzeko. Hurrengo ikasturteko jarraipenean egiaztatuko da Hobekuntza Planean jasotako helburuak betetzen diren ala ez. Egiaztatze positibo hori Zentroaren KKSren barneratzearen adierazle oso garrantzitsutzat hartuko da; barneratze horren eraginkortasunaren eta sendotasunaren adierazle, hain zuzen ere; ikastetxearen kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren kulturaren adierazle, oro har.

Behin-behineko Txostenaren emaitza kontrakoa bada, eta aldeko txostena lortzeko nahitaez aldatu behar diren alderdiak baditu, unibertsitateak atzemandako akatsei buruz behar diren argibideak eman ditzake, 20 egun balioduneko epean. Argibide horiez gain, unibertsitateak Hobekuntza Plan bat erantsi beharko du, arestian aipatutako ezaugarriekin. Dagokion Batzordeak Hobekuntza Plana berrikusi ondoren, atzemandako akatsei erantzuteko desegokitzat jo dezake, eta kontrako txostena egin dezake edo egokitzen jo dezake. Kasu horretan, epe bat ezarriko du Agentziak jarraipena egin eta aurkeztutako Hobekuntza Plana betetzen dela egiaztatzeko. Epea iraganik inork alegaziorik aurkeztu ez badu, unibertsitateak haiek aurkezteari uko egiten diola ulertuko da eta behin-behineko Txostena behin betiko txostena izatera pasatuko da kontrako kalifikazioarekin.

Akreditazio Instituzionalaren jarraipenean zehar egiaztatuko da Hobekuntza Planetan jasotako helburuak **betetzen direla**, eta Zentroko KKS barneratzeko eraginkortasunaren eta sendotasunaren **adierazle oso garrantzitsutzat** hartuko da bereziki, eta, oro har, haren **kalitatearen kulturaren** eta **etengabeko hobekuntzaren** adierazletzat; **batez ere, aurreitazko ebaluazioetan atzemandako oharren** eta/edo nahitaez **hobetu-beharren** ondorio diren ekintzetan.

Txosten hori nahitaezkoa izango da Unibertsitate Kontseiluarentzat, eta, beraz, prozeduraren ebazpena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea eten ahal izango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitako moduan. Unibasqek epe horren etenaldiaren berri emango dio unibertsitateari, unibertsitateko eskaera erregistratzen den egunetik hasita.

Jakinarazpen hori espedienteari erantsiko zaio. Epe hori eteten ez bada, Unibasqek gehienez ere bost hilabete izango ditu txostena egiteko, eskaera erregistratzen den egunetik hasita.

Txostena unibertsitateari bidaliko zaio. Jakinarazpen horrek, prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko epea eten bada, unibertsitateari etenaldia amaitu dela jakinarazteko ondorioak izanen ditu.

Araudiari jarraituz, Txostenaren irismenak zentroko KKS ezartzeko ziurtagiria berritzeko ere balioko du, salbu eta unibertsitateak lehendik ziurtagiria beste bide batetik berritu badu.

3.7. Unibertsitate Kontseiluak emandako Akreditazio Instituzionala berritzeko ebazpena

Unibasqen txostena jaso ondoren, Unibertsitate Kontseiluak dagokion ebazpena sei hilabete baino lehen emango du, unibertsitateko eskaera erregistratzen den egunetik kontaktzen hasita.

Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, onesteko ebazpena izango da. Ebazpena onestekoa edo ezestekoa izan daiteke; azken kasu horretan, arrazoitu egin beharko da. Ezesteko-ebazpena arrazoitua izan beharko da, eta bertan adieraziko da zein errekurtsio jar daitezkeen ebazpenaren aurka, zein administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan.

Akreditatutako zentroaren
Gradu eta Masterreko
unibertsitate-titulu ofizial
guztiek Unibertsitate Kontseiluak
Akreditazio Instituzionala
berritzeko emandako ebazpenari
dagokion data erantsiko dute
RUCTko **akreditazioa** berritzeko.

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren 35. artikuluan ezarritakoaren arabera, zentroaren akreditazioa berritzeak berekin ekarriko du ematen dituen unibertsitate-titulu ofizialak berritzea. Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT, gaztelaniazko sigletan), berritzeko data gisa, Unibertsitate Kontseiluak emandako Akreditazio Instituzionalaren ebazpenari dagokiona jaso beharko da, Unibertsitateen Idazkaritza Orokorraren 2022ko martxoaren 3ko Ebazpenean adierazitako salbuespenekin.

Bestalde, uztailaren 27ko 640/2021 Errege Dekretuaren 14.10 artikuluan adierazitakoaren arabera, Unibertsitate Kontseiluak Akreditazio Instituzionalerako edo hau berritzeko ezesteko ebazpena ematen badu, inplikaturako unibertsitate-zentroak eskaintzen dituen titulu ofizial bakoitzari dagokion egiaztapena berritzeko eskaera egin beharko du, titulu horien jardueraren hasierari edo akreditazioaren azken berritzeari dagokionez ezarritako epean; zentro horrek bere KKSren egiaztapenaren berritzea ere eskatu beharko du. Honen kanpo-ebaluazioak, bereziki, Akreditazio Instituzionalaren azken ebaluazioan atzemandako akatsen zuzenketan arreta jarriko du.

3.8. Zentroak eta Unibasqek egingo duten Akreditazio Instituzionalaren jarraipena

Erantzukizun partekatuari eta etengabeko hobekuntzari dagokienez, eta beti ere haien KKS markoen barruan, Akreditazio Instituzionala duten unibertsitate zentroek Akreditazio Instituzionalaren jarraipen txostena aurkeztuko dute urtero.

Jarraipen txosten horrek Hobekuntza Planean jasotako ekintza zehatzak aztertu beharko ditu, eta, bereziki, Akreditazio Instituzionalaren behin betiko txostenean hobetu beharreko eta jarraipen berezia behar dutelako nabarmendu diren alderdiak. Bestalde, hobetu daitezkeen alderdien jarraipena ere egingo du Unibasqek, eta salbuespenezko kasuetan unibertsitate-

zentro baten Akreditazio Instituzionalaren jarraipena eta ikuskapena egiteko aparteko mekanismoak planteatzeko aukera ere izango du.

Akreditazio Instituzionalaren jarraipenaren helburuak honako hauek dira, besteak beste:

- Hobekuntza Plana planifikatutakoaren arabera, behar bezala, gauzatzen dela ziurtatzea.
- Interes-taldeentzako informazio egokia eta garrantzitsua publikoki eskuragarri dagoela ziurtatzea.
- Proiektu akademikoaren, estrategiaren eta kalitatearen politikaren garapenean egon daitezkeen akatsak detektatzea eta horiek zuzentzeko egindako ekintzak aztertzea.
- Gomendioak eta/edo hobetzeko iradokizunak ematea.
- Jardunbide egokiak identifikatzea Proiektu Akademikoa, estrategia eta kalitate-politika hedatzeko eta hobetzeko EUS esparruan zabaltzeko.

Urtero, jasotako Akreditazio Instituzionalaren jarraipen-txostenen artetik, honako irizpide hauen arabera ebaluatuko direnak hautatuko ditu Unibasqek, bai osorik, bai ereduaren dimentsio batzuei dagokienez:

- Lehentasuna emango zaie akreditazioa berritzeko txostenetan, jarraipeneko aurreko txostenetan eta/edo Unibasqek emandako bestelako txostenetan hutsuneak dituzten unibertsitate-zentroen jarraipen-txostenei.
- Unibertsitateek euren aldetik, edo Agentziak berak arreta berezia behar dutela erabakitzen duten unibertsitate-zentroen txostenak sartu edo hautatu daitezke prozedura honetan.
- Aurretik ebaluatu ez direnen arteko zenbait.

Prozesu horretan hautatzen ez diren jarraipen-txostenak zentro akreditatuaren espedientean sartuko dira, eta kontuan hartuko dira Akreditazio Instituzionala berritu behar duenean.

Akreditazio Instituzionalaren segimenduan behin eta berriz gertatzen diren betetze ezak, eta, beraz, betetze-eza larriak, hala nola Hobekuntza-Planetan ezarritako helburuak ez betetzeak – bereziki, aurretiazko ebaluazioetan atzemandako ohar eta/edo nahitaez hobetu-beharren ondorioz aurreikusitako ekintzetan –, Akreditazio Instituzionala berritzearen aurkako txostena egitea ekarriko du. 13/2012 Legearen babesean, zeinak ahalmena ematen baitio Agentziari EUSen eremuko kalitatea ebaluatzeko eta gizarteari bere jardueren emaitzei buruzko informazioa emateko, Agentziak egoera horren berri eman ahal izango die unibertsitate-erakundeari, EAEko Hezkuntza Saileko unibertsitate-politikaren arloan eskumena duen organoari, beste interes-talde batzuei eta gizarteari oro har, horretarako egokitzat jotzen dituen komunikabideak eta zabalkundea erabiliz.

4. Akreditazio Instituzionala: dimentsioak

▪ 1. Dimentsioa – Estrategia eta kalitate-politika

1. Irizpidea. Estrategia eta kalitate-politika definitzea

Estandarra: *Zentroak helburu estrategiko argiak ezartzen ditu, aldiari behin berrikusten ditu, eta helburu horiekin bat datozen jarduerak planifikatzen ditu. Hori guztia interes-taldeak inplikatzeko dituen*

kalitatezko kultura garatzera bideratuta dago. Jarduera horiek bat etorriko dira, halaber, unibertsitatearen helburu estrategikoekin eta haren kalitate-politikarekin.

1.1. Jarraibidea. Zentroak estrategia eta kalitate-politika definitzeko behar den informazioa kudeatzen du.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak erakundearen beraren interes-talde garrantzitsuenak identifikatzen ditu eta haien premia eta itxaropenak kontuan hartzen ditu.
- Zentroak egungo eta etorkizuneko egoerari buruzko informazioa identifikatzen du, tokiko ingurunea, nazioartekoa, aplikatu beharreko legedia eta abar kontuan hartuta.
- Zentroak bere arriskuak eta aukerak identifikatzen ditu.

1.2. Jarraibidea. Estrategiari eta kalitate-politikari buruzko gogoeta eta definizioa.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak estrategia eta kalitate-politika, kalitatearen helburuak eta helburu estrategikoak hausnartu, ezarri eta onartzeko sistematika du, interes-taldeen parte-hartzea sustatuz.
- Zentroak duen gobernantza-ereduari esker, estrategia eta kalitate-politika, kalitatearen helburuak eta helburu estrategikoak modu autonomoan hausnartzeko, zehazteko eta onartzeko aukera dauka.
- Zentroak Unibertsitatearekin bat datorren estrategia eta kalitate-politika ezartzen du.
- Zentroak bere eremuko arriskuak eta aukerak kontuan hartuz ezartzen ditu helburu estrategikoak, eta dagozkion jarduerak planifikatzen ditu.

1.3. Jarraibidea. Estrategia eta kalitate-politika hedatzea.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak barneratutako zuzendaritza- eta kudeaketa-eredua du (bere organoekin, jarduteko jarraibideekin eta abarrekin), estrategia eta kalitate-politika egoki zabaltzeko aukera ematen duena.
- Zentroak estrategia eta kalitate-politika hedatzen ditu jarduera-planen bidez.
- Hedatzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide material egokiak eta inplikazioa dauzka zentroak.
- Zentroak inplementatutako eta barneratutako KKS bat du eta bertan kalitatea ESG⁴en arabera ziurtatzeko giltzarri hartzen dituen alderdiak formalizatuta ditu.

1.4. Jarraibidea. Estrategia eta kalitate-politika komunikatzea, berrikustea eta eguneratzea.

Jarraibide honetan kontuan izan beharreko alderdiak:

⁴ Gidaren sarrerako atalean aipatzen den bezala, indarrean dagoen arau-esparruaren arabera eta EUSeko unibertsitateetan horri buruz garatu den ibilbidearen arabera, ikastetxeek beren Akreditazio Instituzionala AUDIT ereduaren arabeko KKS ziurtatuz lortu dute. Erreferentzia-eredu hori egokituz jotzen da, jakina, Akreditazio Instituzionala berritzeko, oro har, eta jarraibide hau bereziki baloratzeko, baina ESGen 1. atalarekin bat datozen beste garapen batzuk ere kontuan hartu ahalko lirateke.

- Zentroak estrategiaren eta kalitate-politikaren komunikazio eraginkorra ezartzen du interes-talde ezberdinentzat.
- Zentroak adierazleak erabiltzen ditu strategiaren eta kalitate-politikaren jarraipena, neurketa eta hobekuntza egiteko.
- Zentroak modu sistematikoan berrikusten eta ebaluatzen ditu estrategia eta kalitate-politika eta haren jarduera-planak.
- Zentroak hobekuntza planak ezartzen ditu estrategia eta kalitate-politika eta haien jarduketa planak berrikusi eta ebaluatzean lortutako emaitzen arabera.

Irizpide honetan lortutako maila ziurtatzeko azter daitezkeen ebidentziak:

- Zentroaren antolaketa-egitura.
- Zentroaren araudia (Ikastetxearen araudia).
- Zentroan egindako plan estrategikoa edo hausnarketa estrategikoa.
- Kalitate-politika.
- Urteko kudeaketa-plana.
- Jarraipen-txostenak.
- Hobekuntza-planak.
- Zentroko KKSko dokumentu-baserako eta erregistroetarako sarbidea.

▪ 2. Dimentsioa – Zentroaren Proiektu Akademikoa

2. Irizpidea. Zentroaren Proiektu Akademikoaren diseinuaren kudeaketa.

Estandarra: Prestakuntza programen kalitatearen bermea: Zentroak sistematika propioa du bere prestakuntza programak modu integratuan diseinatu, onartu eta aldizka egiaztatzeko, eta interes-taldeen parte-hartzea bermatzen du. Horri esker, Zentroaren Proiektu Akademikoa hobetu eta berritu dezake, gizartearen erronkei erantzuteko.

2.1 Jarraibidea. Zentroak bere interes-talde nagusiekiko harremanak kudeatzen ditu

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak bere interes-talde nagusienek (ikasketak bukatu dituzten pertsonak, enplegatzaileak, elkarte profesionalak, ikasleak, irakasleak, etab.) Proiektu Akademikoarekin zerikusia duten behar eta itxaropenei buruzko informazio egiaztatua eta eguneratua du.
- Zentroa bere interes-talde nagusiekin elkarlanean aritzen da aktiboki, gizartearen erronkei erantzuteko asmoz hezkuntza-proposamena hobetu eta eguneratzeko.
- Zentroak egoki kudeatzen ditu bere interes-taldeetatik heltzen diren proposamenak, iradokizunak eta kexak.

2.2. Jarraibidea. Zentroak bere Proiektu Akademikoa diseinatu eta onartzen du

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak kontuan hartzen ditu interes-taldeak bere Proiektu Akademikoaren diseinuan.
- Zentroak bere titulazio, helburu eta haiekin lotutako gaitasunen diseinua eta onarpena modu integratuan kudeatzeko ahalmena duen organo bat du.

- Zentroak prestakuntza eskaintza integratuari buruzko erabakiak hartzeko prozesuan, titulazioen eta helburuen diseinuan eta egokitzapenean, gizartearen, lurraldearen eta lanaren testuingurua kontuan hartuta jarduteko mekanismoak eta jarraibideak ditu.
- Zentroak titulu bakoitzari lotutako eragile nagusiekin kontsultatzeko mekanismoak eta jarraibideak ditu, ikasketak bukatu eta joandako pertsonen profil errearen egokitzapenari buruzko beharrezko informazioa lortzeko.
- Zentroak baditu bere Proiektu Akademikoaren ondoko elementu edo alderdi giltzarriekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesua eta etengabeko hobekuntza bermatzen duten mekanismoak: sarrerako/irteerako profilen definizioa; onartzeko eta matrikulatzeko irizpideak; alegazioak, erreklamazioak eta iradokizunak; ikasleei laguntza eta orientazioa ematea irakaskuntzaren garapenari buruz; ikaskuntzen irakaskuntza eta ebaluazioa; ikaslea ardatz duen ikaskuntza; kanpoko praktikak (eta, hala badagokio, Unibertsitate Heziketa Duala edo Ikas-ekinezko Heziketa), ikasleen mugikortasuna eta orientazio profesionala.
- Zentroak hedatze-plan bat du, unibertsitateak bermatua, bere Proiektu Akademikoa ezagutarazteko, bereziki prestakuntza-programa integratuen eskaintzari dagokionez, eta gizartearen erronketara egokitzen ote den ebaluatzen du.

Irizpide honetan lortutako maila ziurtatzeko azter daitezkeen ebidentziak:

- Ikasleen, ikasketak amaitu dituztenen, irakasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen, enplegataileen eta beste kolektibo batzuen gogobetetze-ikasketak.
- Hobekuntza-planak.
- Jarraipen-txostenak.
- Erreklamazioak, iradokizunak eta hobekuntza-proposamenak kudeatzeko prozedura, erregistroa.
- Titulazioen memoriak.
- Irakaskuntza-gidak.

Interes-taldeen **gogobetetze-azterketak funtsezko pieza** dira **KKSen** funtzionamendu egokirako. Beraz, **zorrotz** aztertu eta hobetu behar dira, informazioa biltzeko tresna eta sistematika sendoak erabiliz, alborapenak eta distortsioak murrizteko, **etengabeko hobekuntzaren** ikuspegi argian.

3. irizpidea. Zentroaren Proiektu Akademikoa hedatzea eta ezartzea, ikaslea ardatz izanik.

Estandarra: Zentroak sistematika propioa eta jarraibide batzuk ditu definituta, bere Proiektu Akademikoan sartzen diren prestakuntza- programetarako eta ikaslea ardatz duen ikaskuntza sustatzen dutenak. Jarraibide horiek sarrera-profilen aniztasunari erantzun behar diote, eta irakaskuntza-modalitate eta -metodologiak, tutoretza-planak, ebaluazio-sistemak eta beste baliabide batzuk erabiltzen lagundu behar diote ikasleari, titulu bakoitzean espero denaren arabera ikaskuntza-emaitzak lortu ditzan.

Ikaslea ardatz duen ikaskuntza (Student-Centered Learning, SCL) **ikaskuntza aktiboa** eta esperientzian oinarritua nabarmentzen duen hezkuntza-ikuspegia da. Ikasleak beren ikaskuntzaren arduradunak direla eta ikasteko aukera malguak dituztela nabarmentzen du. SCLak **pentsamoldea** adierazten du, eta baita zentroaren/unibertsitatearen **kultura** ere.

Iturria: Todorovski *et al.* (2015).

3.1. Jarraibidea. Zentroak modu integratuan hedatzen eta ezartzen ditu bere prestakuntza programak, ikaslea ardatz duen ikaskuntzaren ikuspegiarekin.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Ikasleen sarrera-profila haien ikasketak hasteko egokia dela bermatzen da (onartzeko irizpideak).
- Zentroan ematen diren prestakuntza-programak eguneratuta daude eta modu integratuan ezarri dira, egiaztatutako memorietan eta/edo horien ondorengo aldatetetan ezarritako baldintzen eta Agentziak egindako txostenetan adierazitako alderdien arabera.
- Prestakuntza-jarduerak, haien irakaskuntza-metodologiak eta erabilitako ebaluazio-sistemak egokiak dira, eta ikaslea ardatz duen ikaskuntzari eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitzak lortzeko helburuari ondo egokitzen zaizkie.
- Titulazio bakoitzak irakaskuntza-koordinaziorako mekanismoak ditu (arloan/irakasgaien arteko artikulazio horizontala eta bertikala), baneratu eta integratuak. Mekanismo horiei esker, bai ikasleen eta bai irakasleen lan-karga egoki esleitu daiteke, eta denbora-plangintza egokia egin daiteke, eta horrela, aurreikusitako ikaskuntza-emaitzak lortuko direla ziurtatu.
- Zentroak tutoretza-lanari garrantzia ematen dio eta haren garapenari esker, ikasleei behar bezalako laguntza eta jarraipena ematen die.
- Lortutako ikaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte, eta dagozkien Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruaren (MECES, gaztelaniazko sigletan) mailara egokitzen dira.
- Ikasleen alde aurreko ikaskuntza edo esperientziak aitortzeko prozesuak ezarrita daude, egokiak dira eta behar bezala aplikatzen dira.
- Zentroak abian ditu praktika akademiko onartezinak (hala nola iruzurra eta plagioa), zehazteko, saihesteko eta horiei erantzuna emateko mekanismoak.
- Egoki aplikatzen dira indarrean dauden araudi akademikoak.
- Zentroak indarrean dagoen araudia betetzeko konpromiso sendoa du, eskaintzen duen prestakuntzaren alderdi guztiak betez. Horretarako, unibertsitateak ezarritako informazio-jarraibideekin, barne-plangintzarekin eta gainerako gidalerroekin bat dator. Adibidez, arau-esparruak ezarritako eskakizunak kontuan hartzen dira,

unibertsitateko graduatuek gizartearen beharrei erantzuten dien prestakuntza integrala izan dezaten. Era berean, prestakuntza horrek printzipio eta balio demokratikoekin, genero-berdintasunarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat etorri behar du.⁵

3.2 Jarraibidea. I+G+b jarduera eta Zentroak zabaldutako ezagutzaren transferentzia⁶

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Barne- eta/edo kanpo-finantzaketarekin ikerketa-programak eta -proiektuak planifikatzen eta garatzen dituen ikerketa-egitura ziurtatzen duten mekanismoak garatzen ditu zentroak, parte hartzen duten doktorego-programaren ikerketa-ildoekin lerrotutako ikerketa-emaitzak lortzeko, dagozkien diziplina-esparruetako nazioarteko erreferenteekin.
- Zentroak ezagutza transferitzeko jarduerak garatzen ditu, besteak beste, erakunde, enpresa, instituzio eta erakundeekin lankidetzan, eta horrek berrikuntza eta aurrerapena sortzen du gizartean.

Irizpide honetan lortutako maila ziurtatzeko azter daitezkeen ebidentziak:

- Hezkuntza-eredua.
- Hobekuntza-planak.
- Jarraipen-txostenak.
- Irakaskuntza-gidak.
- Titulazioen memoriak.
- Kanpo ebaluazio-txostenak.
- Ikasleen eta ikasketak amaitu dituztenen (egresatuen) gogobetetze-azterketak.
- Harrera-plana.
- Tutoretzako ekintza-plana.

⁵ Ildo horretan, beste hainbat autonomia eta estatu mailako xedapenen artean, honako lege hauek nabarmendu behar dira: Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa; desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina aldatzen duen martxoaren 31ko 6/2022 Legea— azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua—, irisgarritasun kognitiboa eta hura exijitzeko eta aplikatzeko baldintzak ezarri eta arautzeko; Sexu-Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa; edo EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea. Azken xedapen honek, besteak beste, ezartzen du EAEko Administrazioak sustatuko duela EUSko unibertsitateek emakumeen eta gizonen berdintasun-agentearen prestakuntza espezializatua modu iraunkorrean eskaintzea. Halaber, unibertsitateek genero-ikuspegia beren diziplina eta jakintza-arlo guztietan txertatu beharko dute. Bereziki, hezkidetzako-erakunde espezifikokoak barneratuko dituzte unibertsitatez kanpoko irakasleen prestakuntzan, eta berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko edukiak eskainiko dituzte, batez ere, biktimen lan egiten duten profesionalen ikasketetan, baita komunikazioarekin lotutako arloetan ere. Hori horrela, 10/2022 Lege Organikoa, unibertsitateko titulazio ofizialen eta horiek eskaintzen dituzten zentroen kalitatearen bermatzearekin lotutako xedapen batean (zehazki, 32. artikuluan, Zentroen eta titulazio unibertsitarioen ebaluazioa, egiaztapena eta akreditazioa egiteko neurriak), ezartzen du genero-berdintasunari eta sexu-indarkeriaren prebentzio eta desagerpenari buruzko edukien falta, justifikaziorik gabe, xedapen horretan aipatzen diren profesional-talde guztiek (bereziki, sexu-indarkeriaren prebentzian, detekzioan, konponketan eta erantzunean zuzenean edo zeharka parte hartzen dutenek, baita erasotzaileekin zuzenean harreman duten biktimen arreta jasotzen dutenek, adin txikiekin kontaktu zuzena eta etengabea duten langileen prestakuntzan arreta berezia jarriz) aurkako txosten bat ekar dezakeela, egiaztapen edo ebaluazio-organo dagokienak motibatuta. Era berean, ezartzen du unibertsitateko titulazio ofizialen ikasketa-planetan, betiere dagokion titulazioko eskumenekin koherentea bada, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenerako prestakuntza-ibilbide bat barne hartu beharko dela.

⁶ Jarraibide honek doktoretzako titulu ofizialak ematen dituzten zentroi baino ez die eragiten, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren 2022ko martxoaren 3ko Ebazpenarekin bat.

- Ikastetxearen I+G+b plana eta ezagutzaren transferentzia.⁷

▪ 3 Dimentsioa – Pertsonak

4. Irizpidea. Unibertsitate-zentroko langileen bermea eta hobekuntza.

Estandarra: Zentroak mekanismoak garatzen ditu bere langileen sarbidea, kudeaketa eta prestakuntza, bai eta haien jardueraren aldizkako ebaluazio sistematikoa ere, behar bezalako bermeekin egiten direla ziurtatzeko, eta, aldi berean, haien eginkizunak betetzeko aukera emanez, beti ere haien askatasuna eta osotasuna errespetatuz.

4.1. Jarraibidea. Zentroak pertsonak kudeatzeko politika eraginkorra garatzen du.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak bertakoak inplikaturako interes-taldeak biltzen dituen organo bat du, langileen politika (akademikoa eta administrazio eta zerbitzuetakoa), sarbidea, prestakuntza, ebaluazioa, sustapena eta aintzatespena definitu eta onartzeko gaitasuna duena.
- Zentroak profil egokienak identifikatzeko eta talentua erakartzeko estrategiak ditu. Prozesu argi, garden eta bidezkoak ezartzen eta jarraitzen ditu langile egokiak kontratatze eta haien helburuak lortzeko, eta aukera-berdintasun eraginkorra, lehia, merezimendua, gaitasuna eta irakaskuntzaren garrantzia onartzen duten enplegu-baldintzak ziurtatzen ditu.
- Aurreko bi puntuetan aipaturako prozesuen ondorioz, langileak (akademikoak eta administrazio eta zerbitzuetakoak) nahikoak eta egokiak dira, eta dedikazio egokia dute beren eginkizunak betetzeko eta ikasleei laguntzeko, tituluaren eta ikasle kopuruaren arabera.
- Zentroak kudeatzen dituen tituluen egiaztapen-, baimen- eta jarraipen-txostenetan zehaztutako egiaztapen-memoretako konpromisoak eta gomendioak bete ditu, bere langileei dagokienez (akademikoak eta administrazio eta zerbitzuetakoak).
- Langile akademikoek zentroak eskaintako proiektu akademikoan sartzen diren tituluen irakaskuntzarako eskatzen den kualifikazio eta espezializazio maila dute (bai titulu-mailan, egokitzeko oro har, eta baita ikasgai/irakasgai maila zehatzari egokitzeko ere). Halaber, Proiektu Akademiko hori zabaldu eta inplementatzeko beharrezko diren irakaskuntza-, ikerketa- eta ezagutza-transferentziako esperientzia eta kalitatea bermatzen ditu.
- Zentroak modu sistematikoan eta eguneratuan biltzen eta aztertzen du bere langileen (akademikoak eta administrazio eta zerbitzuetakoak) beharrak ezagutzeko aukera ematen duen informazioa. Lan-mekanismo eta -sistematika barneratuak daude, eta horiei esker, langileen politikan hobekuntzak egiten, berrikusten eta ezartzen dira.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatzeko estrategiak eta neurriak ditu zentroak.
- Zentroak langileen (akademikoak eta administrazio eta zerbitzuetakoak) gogobetetasuna ebaluatzen du, informazio garrantzitsua eta funtsezkoa ematen dioten inkestak, elkarrizketak edo talde fokalak erabiliz horretarako.

⁷ Soilik Doktoretza titulu ofizialak ematen dituzten Zentroentzat.

- Zentroan badira langile-politikaren emaitzei buruzko kontuak ematea ahalbidetzen duten lan-mekanismo eta -sistematika barneratuak.

4.2. Jarraibidea. Zentroak bere langileen prestakuntza eta gaikuntza bermatu eta sustatzen du.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak bere langileen (akademikoak eta administrazio eta zerbitzuetakoak) prestakuntza beharrak identifikatu eta aztertzen ditu, prestakuntza planak ezartzen ditu eta egindako ekintzen eragina neurtzen du, prestakuntza planen eraginkortasuna aldian-aldian ebaluatuz.
- Zentroak bere langileen (akademikoak eta administrazio eta zerbitzuetakoak) garapen profesionalerako aukerak eskaintzen ditu.
- Zentroak bere langile akademikoen prestakuntza eta trebakuntza sustatzen ditu, hartara beren proiektu akademikoa etengabe hobetzeko.
- Zentroak jarduera intelektuala sustatzen du, irakaskuntzaren, ikerketaren eta ezagutzaren transferentziaren arteko lotura indartzeko eta, hartara, Proiektu Akademikoa hobetzeko.

4.3. Jarraibidea. Zentroak pertsonak ebaluatzen ditu eta aintzatespena eskaintzen die.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak irakaslanaren/jardunaren kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eredia du, eta horrek langileen aintzatespena errazten du (akademikoa eta administrazio eta zerbitzuetakoa).
- Zentroak baditu langile akademikoen eta irakaskuntzari laguntzeko langileen ebaluazio-, sustapen- eta aintzatespen-ereduei buruzko erabakiak hartzeko mekanismoak.

Irizpide honetan lortutako maila ziurtatzeko azter daitezkeen ebidentziak:

- Hobekuntza-planak.
- Jarraipen-txostenak.
- Langileen politika.
- Langile akademikoen egitura eta plantilla.
- Irakasleen informazio publikorako esteka.
- Prestakuntza-planak eta horien ebaluazioa.
- DOCENTIA programaren emaitzen analisia.
- Berdintasun Plana.
- Gogobetetze-azterketak.

▪ 4 Dimentsioa – Baliabide materialak eta zerbitzuak

5. Irizpidea. Baliabide materialen eta zerbitzuen bermea eta hobekuntza.

Estandarra: Zentroak bere Proiektu Akademikoa egoki garatzeko baliabide materialak eta zerbitzuak diseinatu, kudeatu eta hobetzeko mekanismoak eskuratu ditu.

5.1. Jarraibidea. Zentroak bere Proiektu Akademikoan integratzen den irakaskuntza-ikaskuntza prozesua garatzeko baliabide material eta zerbitzu egokiak ditu.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroaren Proiektu Akademikoan integratutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesua garatzeko eskura jarri diren zerbitzuak egokiak dira zentro horren izaeraren, modalitatearen, matrikulatutako ikasle kopuruaren eta eskuratu beharreko gaitasunen arabera.
- Matrikulatu ondoren ikasleen eskura jartzen diren laguntza eta orientazio akademiko, profesional eta mugikortasunerako zerbitzuak tituluaren gaitasunetara eta modalitatera egokitzen dira eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua errazten dute.
- Curriculumetik kanpoko praktikak egitea aurreikusten bada, horiek aurreikusitakoaren arabera planifikatutakoak eta egokiak izango dira zentroan eskaintzen diren tituluaren gaitasunak eskuratzeko.
- Zentroak beste entitate batzuek prestakuntza jardueretan duten parte-hartze egokia bermatzen du (eta, hala badagokio, ziurtagiriak) zentroak eta parte-hartze hori behar bezala formalizatzen du.
- Baliabide materialak (gelak eta haien ekipamendua, lanerako eta ikasketetarako espazioak, laborategiak, tailerrak eta gune esperimentalak, liburutegiak, etab.) ikasle kopuruari eta programatutako prestakuntza jardueri egokitzen zaizkie.
- Azpiegitura, zerbitzu eta materialen antolaketak sarbide unibertsala errazteko dute.
- Zentroak gauzatu egin ditu egiaztapen-memorian sartutako konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-, baimen- eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak, prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileei, baliabide materialei eta tituluaren laguntza-zerbitzuei buruzkoak.
- Erdipresentzialak edo urrutikoak diren irakaskuntzen kasuan, zentroak modalitate horretako helburuak betetzeko dauden baliabide materialak eta zerbitzuak ditu; hala nola, zentro elkartuak, ekipo informatikoak, plataforma birtualak, telekomunikazioen azpiegitura, etab. Halaber, zenbait faktoreren arabera, irakaskuntza mota horren euskarri direla bermatu behar du, hala nola ikasle kopurua eta talde kopurua.

Irizpide honetan lortutako maila ziurtatzeko azter daitezkeen ebidentziak:

- Hobekuntza-planak.
- Jarraipen-txostenak.
- Baliabideak hornitzeko plana.
- Tutoretzako ekintza-plana.
- Ikasleen, egresatuen, irakasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen, enplegatzaileen eta beste kolektibo batzuen gogobetetze-azterketak.

▪ 5. Dimentsioa – Etengabeko hobekuntzarako emaitzak eta jarraipena

6. Irizpidea. Emaitzen analisia.

Estandarra: *Zentroak sistematika propio bat definitu du bere Proiektu Akademikoaren emaitzen datuak etengabe bildu, aztertu eta erabiltzeko. Zentroak integratuta du sistematika hori bere Proiektu Akademikoaren emaitzak ebaluatu eta hobetzeko —besteak beste, ikaskuntzaren emaitzak, laneratzea eta interes-taldeen gogobetetzea—, eta gero erabakiak hartzeko eta Proiektu horren kalitatea hobetzeko.*

6.1. Jarraibidea. Zentroak emaitzei buruzko adierazleak bildu eta aztertzen ditu, bere Proiektu Akademikoa hobetzeko erabakiak hartzea errazteko.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak eskainitako Proiektu Akademikoan sartzen diren prestakuntza-programetako datu eta adierazle nagusien bilakaera (esaterako, errendimendutasak, gogobetetze-emaitzak eta laneratzea) egokia da, gaiaren eremuarekin eta zentroaren gizarte, lurralde- eta lan-testuingurutik sortzen diren erronkekin bat datoz.
- Adierazleen azterketa egiten da lortutako emaitzen eta ezarritako helburuen arteko konparazioa egiteko, eta joera horiek azken ikasturteetan jasotako datuekin alderatzeko aukera ematen dute.
- Proiektu akademikoan sartzen diren prestakuntza-programen ikaskuntza-emaitzen ebidentziak bat datoz egiaztapen-memoretan ezarritakoarekin.
- Zentroak aldiari-aldiari berrikusten du bere adierazleen eta bildutako informazioaren izateko arrazoia eta eraginkortasuna.
- Jasotako adierazleek zentroaren Proiektu Akademikoaren jarraipena, aldaketa eta etengabeko hobekuntza ahalbidetzen dute.

Irizpide honetan lortutako maila ziurtatzeko azter daitezkeen ebidentziak:

- Hobekuntza-planak.
- Jarraipen-txostenak.
- Ikasleen, egresatuen, irakasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen, enplegatzaileen eta beste kolektibo batzuen gogobetetze-azterketak.
- Aginte-taula, zentroak bere proiektu akademikoa garatzeko gakotzat jotzen dituen datu eta adierazle nagusiekin (errendimendutasak, gogobetetze-emaitzak, laneratzea, etab.).
- Egresatuen laneratzeari buruzko azterketa egin da.
- Irakasgaiak ebaluatzeko proben lagina.
- Gradu edo Master Amaierako Lanen lagina.
- Kanpo-praktiken memorien lagina.
- Unibertsitateko Prestakuntza Dualeko edo Ikas-ekinezko heziketaren memorien laginak.

7. Irizpidea. Zentroaren jardueren eta proiektu akademikoaren jarraipena.

Estandarra: *Zentroak barneratutako sistematika propioa eta jarraipen-jarraibideak ditu, erakundearen maila guztietan etengabe hobetzeko.*

7.1. Jarraibidea. Zentroak bere prestakuntza programak eta haiekin zerikusia duten beste jarduera batzuk hobetzeko sistematika propioa eta jarraipenerako jarraibideak ditu.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- KKS_k erraztu egiten du Hobekuntza-Planak diseinatzeko tituluen jarraipenari buruzko barne-txostenak egitea. Txosten horietan, gutxienez, atzemandako beharrak asetzeko ekintzak sartzen dira, hala nola: ekintza horiek garatzeko ardura

duten pertsona eta kide anitzeko organoak; gauzatze-epea eta horien gauzatzearen jarraipen eta neurketa bat.

- Zentroak KKS berrikusi eta hobetzeko prozesua bermatzen du.
- Zentroak, eta bereziki Zuzendaritzak edo Koordinazio Taldeak, bere prozesuen jarraipena eta etengabeko hobekuntza egiteko erabakiak hartzen ditu, KKS emandako informazioan oinarrituta, eta arreta berezia jartzen dio bere Proiektu Akademikoan integratzen den irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari.
- Zentroak kontuan hartzen ditu inguruko funtsezko alderdiak (ekonomikoa, soziala eta akademikoa) eta interes-talde guztiak bere Proiektu Akademikoan integratutako prestakuntza-programen jarraipena eta etengabeko hobekuntza egiteko.

Irizpide honetan lortutako maila ziurtatzeko azter daitezkeen ebidentziak:

- Hobekuntza-planak.
- Jarraipen-txostenak.
- KKSren barne-ebaluazioa edo auditoretza-txostenak.

▪ 6. Dimentsioa – Informazio publikoa

8. Irizpidea. Zentroaren jardueri eta proiektu akademikoari buruzko informazioa argitaratzea.

Estandarra: *Zentroak bere jardueri eta Proiektu Akademikoari buruzko informazio eguneratua aldian-aldian argitaratzeko sistematika propioa eta jarraibideak ditu, erabakiak hartzeko prozesuak, kontuak ematea eta erakundearen maila guztietan etengabeko hobekuntza bermatzen dituztenak.*

8.1. Jarraibidea Zentroak bere prestakuntza programei eta haiekin zerikusia duten bestelako jardueri buruzko informazio egoki eta eguneratua argitaratzen du aldian-aldian.

Jarraibide honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Zentroak bere Proiektu Akademikoan integratzen diren prestakuntza programei buruzko informazio eguneratua eta eskuragarria argitaratzen du, egiaztapen-memoretan, horien garapenean eta emaitzetan jasotakoaren arabera.
- KKSren dokumentazioa inplikaturako unibertsitate-komunitatearentzat eskuragarri dago, eta modu fidel eta eguneratuan deskribatzen ditu bai zentroan garatzen diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesu orokorrarekin lotutako prozesuak, bai eta haren sistematizatze, neurtze, aztertze eta hobetzeko mekanismoak.

Irizpide honetan lortutako maila ziurtatzeko azter daitezkeen ebidentziak:

- Ikastetxearen webgunea/lotutako titulazioak.
- Hobekuntza-planak.
- Jarraipen-txostenak.
- Ikasleen, egresatuen, irakasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen, enplegatuzaileen eta beste kolektibo batzuen gogobetetze-azterketak.

5. Erreferentziak

AQU Catalunya (2020). Estàndards i criteris per a l'acreditació institucional de centres universitaris, Agència per a la Qualitat del Sistema Universitari de Catalunya, Barcelona.

BOE (2021). Real Decreto 640/2021, de 27 de julio, de creación, reconocimiento y autorización de universidades y centros universitarios, y acreditación institucional de centros universitarios. BOE 179, de 28 de julio de 2021.

BOE (2021). Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, por el que se establece la organización de las enseñanzas universitarias y del procedimiento de aseguramiento de su calidad. BOE 233, de 29 de septiembre de 2021.

BOPV (2017). DECRETO 274/2017, de 19 de diciembre, de implantación y supresión de las enseñanzas universitarias oficiales conducentes a la obtención de los títulos de Grado, Máster y Doctorado. [<https://www.legegunea.euskadi.eus/decreto/decreto-2742017-de-19-de-diciembre-de-implantacion-y-supresion-de-las-ensenanzas-universitarias-oficiales-conducentes-a-la-obtencion-de-los-titulos-de-grado-master-y-doctorado/x59-preview/es/>].

BOPV (2018). ORDEN de 27 de julio de 2018, de la Consejera de Educación, sobre la categorización de las enseñanzas universitarias oficiales de Grado y Máster. [Accesible en [https://www.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2018/07/27/\(1\)/dof/spa/html/web01-s2hhome/es/](https://www.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2018/07/27/(1)/dof/spa/html/web01-s2hhome/es/)].

ENQA (2015). Standards and Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education, Bruselas, Bélgica. [https://enqa.eu/wp-content/uploads/2015/11/ESG_2015.pdf].

EUSKALIT (2018). Modelo de Gestión Avanzada 2018, Zamudio, Bizkaia. [<https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/docs/modelo2018.pdf>].

BOE (2022). Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de garantía integral de la libertad sexual. *Boletín Oficial del Estado*, 215, de 7 de septiembre de 2022. <https://www.boe.es/eli/es/lo/2022/09/06/10/con>

BOE (2022) Resolución de 3 de marzo de 2022, de la Secretaría General de Universidades, por la que se dictan instrucciones sobre el procedimiento para la acreditación institucional de centros de universidades públicas y privadas, y se publica el Protocolo para la certificación de sistemas internos de garantía de calidad de los centros universitarios y el Protocolo para el procedimiento de evaluación de la renovación de la acreditación institucional de centros universitarios, aprobados por la Conferencia General de Política Universitaria. BOE 58, de 9 de marzo de 2022.

Todorovski, B., Nordal, E. y Isoski, T. (2015). Overview on Student-Centered Learning in Higher Education in Europe: Research Study. European Students' Union [<https://www.esu-online.org/wp-content/uploads/2016/07/Overview-on-Student-Centred-Learning-in-Higher-Education-in-Europe.pdf>].

Unibasq (2016). Programa AUDIT. Guía para la Certificación de la implantación de Sistemas de Garantía de Calidad, Unibasq, Vitoria-Gasteiz. [https://www.unibasq.eus/wp-content/uploads/2017/12/AUDIT_Guia-Certificacion_Unibasq_octubre_2016.pdf].

Unibasq (2021a). Protocolo para la Renovación de la Acreditación de Títulos de Grado y Máster del Sistema Universitario Vasco, Unibasq, Vitoria-Gasteiz.

Unibasq (2021b). Protocolo para el seguimiento de los Títulos Universitarios Oficiales de grado y máster del Sistema Universitario Vasco, Unibasq, Vitoria-Gasteiz.

REACU (2022a). Protocolo de evaluación para el seguimiento y la renovación de la acreditación de los títulos universitarios oficiales de Grado y Máster universitario.

REACU (2022b). Protocolo de evaluación para el seguimiento y la renovación de la acreditación de los programas de doctorado conducentes a la obtención del título oficial de Doctora o Doctor.

REACU (2022c). Procedimiento para la evaluación de los casos de títulos impartidos en varios centros en el marco de los protocolos de Acreditación Institucional de Centros Universitarios.

Sánchez Chaparro, T. (2022). Las Agencias de calidad frente a la “fatiga de evaluación”, Espacios de Educación Superior [<https://www.espaciosdeeducacionsuperior.es/08/06/2022/las-agencias-de-la-calidad-frente-a-la-fatiga-de-evaluacion/>].